Dicho Comité estará presidido por la persona titular de la Dirección General del Servicio Público de Empleo Estatal y se compondrá, además, de seis miembros: dos designados por el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, uno de los cuales realizará las funciones de vicepresidente; uno designado por la Intervención General de la Administración del Estado; dos designados por la Secretaría de Estado de Empleo, uno de los cuales actuará como secretario del Comité, con voz y sin voto; y uno en representación de las Comunidades Autónomas, con voz y sin voto, que será quien ostente, en cada momento, la vicepresidencia por las Comunidades Autónomas del Consejo General del Sistema Nacional de Empleo.

Este Comité tendrá las funciones de formular propuestas de ordenación, asesoramiento y selección de valores que han de constituir la cartera del Fondo, enajenación de activos financieros que lo integren y demás actuaciones que los mercados financieros aconsejen, así como elaborar un informe anual.

El Comité de Gestión del Fondo de políticas de empleo podrá contar con el asesoramiento de expertos en los términos que reglamentariamente se determinen.



9.

Enplegu-politiken funtsaren behar bezalako jarraipena egiteko, horren bilakaeraren eta osaeraren berri emango zaio sei hilez behin Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko Batzorde Betearazleari.

10.

Gauzatzeak, inbertsioak, berrinbertsioak eta desinbertsioak, eta ekitaldi bakoitzeko enplegu-politiken funtsaren aktibo finantzarioak eskuratzeko, erabiltzeko eta kudeatzeko gainerako eragiketak aurrekontuz kanpokoak izango dira eta ekitaldiko azken egun baliodunean egotziko zaizkio Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuari, funtsak egun horretan duen ondare-egoeraren arabera; ondorio horretarako, bada, egokitu egin ahal izango dira aurrekontu-kredituak.

11.

Gobernuak enplegu-politiken funtsaren bilakaerari eta osaerari buruzko urteko txostena aurkeztuko die Gorte Nagusiei.

Gobernuak bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez igorriko die txosten hori Gorte Nagusiei, eta diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du.

12.

Enplegu Sistema Nazionalaren Kontseilu Nagusiak, bere batzorde iraunkorraren bidez, funtsaren zorroa osatu behar duten baloreak antolatzeko eta hautatzeko proposamenen, zorroa osatuko duten aktibo finantzarioen besterentze-proposamenen, finantza-merkatuek aholkatzen duten gainerako jardueren eta bilakaeraren jarraipena egingo du.

25. artikulua.

Enplegu-politika aktiboen finantzaketa autonomikoa.

Autonomia-erkidegoetan garatzen diren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari finantzatzea ez dagozkion enplegu-politika aktiboak, edo, kasua hori bada, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren osagarri direnak, autonomia-erkidegoko aurrekontuetan haien zat ezartzen diren kontu-sailen bidez eta Europar Batasunetik datozen funtsetako partaidetzaren bidez finantzatuko dira, hala badagokio.

9.

A efectos de realizar un adecuado seguimiento del Fondo de políticas de empleo, la Comisión Ejecutiva del Servicio Público de Empleo Estatal será informada semestralmente de la evolución y composición del mismo.

10.

Las materializaciones, inversiones, reinversiones y desinversiones y demás operaciones de adquisición, disposición y gestión de los activos financieros del Fondo de políticas de empleo correspondientes a cada ejercicio tendrán carácter extrapresupuestario y se imputarán definitivamente el último día hábil del mismo, al presupuesto del Servicio Público de Empleo Estatal, conforme a la situación patrimonial de dicho fondo en esa fecha, a cuyo efecto serán objeto de adecuación los créditos presupuestarios.

11.

El Gobierno presentará a las Cortes Generales un informe anual sobre la evolución y composición del Fondo de políticas de empleo.

El Gobierno remitirá dicho informe a las Cortes Generales a través de su Oficina Presupuestaria que lo pondrá a disposición de los Diputados, Senadores y las Comisiones parlamentarias.

12.

El Consejo General del Sistema Nacional de Empleo, a través de su Comisión Permanente, realizará el seguimiento de las propuestas de ordenación, selección de valores que han de constituir la cartera del Fondo, enajenación de activos financieros que lo integren y demás actuaciones que los mercados financieros aconsejen, así como de su evolución.

Artículo 25.

Financiación autonómica de las políticas activas de empleo.

Las políticas activas de empleo desarrolladas en las comunidades autónomas cuya financiación no corresponda al Servicio Público de Empleo Estatal o, en su caso, las complementarias de las del Servicio Público de Empleo Estatal, se financiarán, en su caso, con las correspondientes partidas que los presupuestos de la comunidad autónoma establezcan, así como con la participación en los fondos procedentes de la Unión Europea.



II. TITULUA

Enplegu-zerbitzu publikoek emandako Enplegu Sistema Nazionalaren zerbitzuak

I. KAPITULUA

Zerbitzuen erabiltzaileak

26. artikulua.

Zerbitzuen erabiltzaile diren pertsonak eta enpresak.

Enplegu-zerbitzu publikoek langabeei, landunei eta enpresei –forma juridikoa gorabehera– eskainiko dizkiete zerbitzuak.

Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komunean bilduko dira lurralde nazional osoan eta enplegu-zerbitzu publiko guztiek bermatu beharreko zerbitzuak.

27. artikulua.

Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komuna.

1.

Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komuna erregelamendu bidez arautuko da eta honako helburu hau du: Estatu osoan, enplegu-zerbitzu publikoetarako eta horietan eskainitako zerbitzuetarako irispidea aukera-berdintasunean bermatzea, eta enplegurako irispidean aukera-berdintasuna bermatzea, enplegu-zerbitzu publikoek horien erabiltzaile diren pertsona eta enpresekiko hartutako konpromisoa baita.

Nolanahi ere, langabeei enplegu-zerbitzu publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuetarako doako irispidea bermatuko zaie.

2.

Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komunean sartuko dira enplegu-zerbitzu publikoek pertsonen –langabe nahiz landun– eta enpresei eman beharreko zerbitzu komunak.

Enplegu-zerbitzu publiko bakoitzak bere zerbitzu-zorroa eratu ahal izango du eta, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komunaz gain, zerbitzu-publikoak berak –dagokion eskumen-eremuan– erabakitako beste zerbitzu osagarri batzuk ere bilduko ditu, bere lan-merkatuaren bilakaerari, pertsona eta enpresen beharrei, Enplegu Sistema Nazionalaren esparruan

TÍTULO II

Servicios del Sistema Nacional de Empleo prestados por los servicios públicos de empleo

CAPÍTULO I

Usuarios de los servicios

Artículo 26.

Personas y empresas usuarias de los servicios.

Los servicios públicos de empleo prestarán servicios a las personas desempleadas, a las personas ocupadas y a las empresas, independientemente de su forma jurídica.

La Cartera Común de Servicios del Sistema Nacional de Empleo recogerá los servicios cuya prestación debe ser garantizada en todo el territorio nacional y por todos los servicios públicos de empleo.

Artículo 27.

Cartera Común de Servicios del Sistema Nacional de Empleo.

1.

La Cartera Común de Servicios del Sistema Nacional de Empleo, que se regulará reglamentariamente, tiene por objeto garantizar, en todo el Estado, el acceso en condiciones de igualdad a los servicios públicos de empleo y a los servicios prestados por los mismos, y la igualdad de oportunidades en el acceso al empleo, constituyendo un compromiso de los servicios públicos de empleo con las personas y empresas usuarias de los mismos.

En todo caso se garantizará a los trabajadores desempleados el acceso gratuito a los servicios prestados por los servicios públicos de empleo.

2.

La Cartera Común de Servicios del Sistema Nacional de Empleo recogerá los servicios comunes a prestar por los servicios públicos de empleo a las personas, tanto desempleadas como ocupadas, y a las empresas.

Cada servicio público de empleo podrá establecer su propia Cartera de servicios, que incluirá, además de la Cartera Común de Servicios del Sistema Nacional de Empleo, aquellos otros servicios complementarios que el servicio público de empleo determine en el ámbito de sus competencias, atendiendo a la evolución de su mercado de trabajo, a las necesidades de las



finkatutako lehentasunei eta eskura dituen baliabideei erreparatuta.

3.

Enplegu Sistema Nazionalako zerbitzu jakin batzuetarako irispidea izateko, langabe nahiz landunek enplegu-eskatzaile gisa erregistratu beharko dute.

II. KAPITULUA

Langabeek zerbitzuak baliatzea

28. artikulua.

Zerbitzuen ikuspegi pertsonalizatua.

1.

Langabeek, enplegu-zerbitzu publikoak baliatzeko, izena eta datuak emango dituzte hasierako elkarrizketa batean, eta laneratzeko zer zerbitzu behar dituzten baloratuko da.

Horren arabera, eta langabetuekin batera enplegurako banakako ibilbide pertsonalizatua egitea egoki den edo ez erabakiko da, kontuan harturik pertsonaren lanbide-profila, lanbide-kompetentziak, beharrak eta aurreikuspenak, eta lan-merkatuaren egoera. Halaber, aintzat hartuko dira prestazioak jasotzearekin eta lehentasuna duen gizataldeetako batean egotearekin loturiko irizpideak, baita Enplegu Sistema Nazionalan ezartzen direnak ere.

2.

Enpleguaren ibilbide indibidual eta pertsonalizatuaren artikulazioa langabeek duten eskubidetzat eta enplegu-zerbitzu publikoentzako betebehartzat taxutzen da.

29. artikulua.

Banakako enplegu-ibilbide pertsonalizatua.

1.

Banakako enplegu-ibilbide pertsonalizatuak, banakako diagnostiko-elkarrizketa baten bidez, kontuan hartuko ditu enplegu-zerbitzu publikoak enplegu-eskatzaileari eskaintzen dizkion Enplegu Sistema Nazionalako Zerbitzu Zorro Komuneko ekintzak eta berariazko zerbitzuak, eskatzailearen beharrekin, eskakizunekin eta lortu beharreko helburuarekin bat datozenak.

personas y empresas, a las prioridades establecidas en el marco del Sistema Nacional de Empleo y a los recursos disponibles.

3.

El acceso a determinados servicios del Sistema Nacional de Empleo requerirá la inscripción como demandante de empleo tanto de las personas desempleadas como de las ocupadas.

CAPÍTULO II

Acceso de las personas desempleadas a los servicios

Artículo 28.

Enfoque personalizado de los servicios.

1.

El acceso de las personas desempleadas a los servicios públicos de empleo se efectuará mediante su inscripción y recogida de datos en una entrevista inicial que conllevará una valoración de los servicios que requiere para su inserción laboral.

De acuerdo con ello, y en colaboración con las personas desempleadas, se determinará, si procede, el comienzo de un itinerario individual y personalizado de empleo en función del perfil profesional, competencias profesionales, necesidades y expectativas de la persona, junto a la situación del mercado de trabajo y a criterios vinculados con la percepción de prestaciones, la pertenencia a colectivos definidos como prioritarios y aquellos que se determinen en el marco del Sistema Nacional de Empleo.

2.

La articulación del itinerario individual y personalizado de empleo se configura como un derecho para las personas desempleadas y como una obligación para los servicios públicos de empleo.

Artículo 29.

Itinerario individual y personalizado de empleo.

1.

El itinerario individual y personalizado de empleo contemplará, a partir de una entrevista de diagnóstico individualizada, las acciones de la Cartera Común de Servicios del Sistema Nacional de Empleo y servicios específicos, que ofrece el Servicio Público de Empleo a la persona demandante de empleo, acordes a sus necesidades, sus requerimientos y al objetivo a conseguir.



Langabe guztiei egingo zaizkie halako ibilbideak.

2.

Beharrezkoa da enplegurako akordio pertsonal bat onartzea eta sinatzea, banakako enplegu-ibilbide pertsonalizatua egiteko.

Akordio horren bidez, ibilbidearen onuradun den pertsonak, alde batetik, konpromisoa hartzen du aktiboki parte hartzeko bere enplegagarritasuna hobetzeko ekintzetan, enplegua aktiboki bilatzeko edo enpresa-ekimen bat martxan jartzeko; eta, beste alde batetik, enplegu-zerbitzu publikoak konpromisoa hartzen du beharrezko ekintzak eta neurriak planifikatzeko eta esleitzeko.

Langabezia-prestazioak eta -sorospinak jasotzen dituzten pertsonen kasuan, enplegurako akordio pertsonal hau 41. artikuluan zehaztutako jarduera-konpromisoaren parte izango da.

3.

Enplegurako akordio pertsonala justifikatu gabeko kausengatik betetzen ez bada, Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen (abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta) testu bateginean aurreikusitako zehapenak aplikatuko dira.

Ondorio horietarako, langabezia-prestazioak eta -sorospinak jasotzen dituzten pertsonak egiten dituzten ez-betetzeak horiek sinatutako jarduera-konpromisoaren ez-betetzetzat joko dira.

4.

Enplegu-zerbitzu publikoak arduratuko dira banakako enplegu-ibilbide pertsonalizatuak egiteaz, ebaluatzeaz, birdefinitzeaz eta horien jarraipena egiteaz, eta, hala badagokio, enplegu-eskatzailleek garatu behar dituzten ekintzak egitea erakunde laguntzaileen esku utziko dute.

Nolanahi ere, enplegu-zerbitzu publikoen berezko jarduerak eta hitzartu ahal izango direnak zehaztuko dira.

30. artikulua.

Lehentasuneko taldeak.

1.

Konstituzioaren eta Estatutuetakoa aginduei jarraikiz, eta Europar Batasunaren eremuan eta Enplegua Aktibatzeako Espainiako Estrategian hartutako konpromisoak aintzat hartuta,

La elaboración de estos itinerarios se extenderá a toda la población desempleada.

2.

Para la realización del itinerario individual y personalizado de empleo será necesaria la suscripción y firma de un acuerdo personal de empleo.

Mediante este acuerdo, por una parte, la persona beneficiaria del itinerario se compromete a participar activamente en las acciones para la mejora de su empleabilidad y de búsqueda activa de empleo, o la puesta en marcha de una iniciativa empresarial, y, por otra parte, el servicio público de empleo se compromete a la asignación y planificación de las acciones y medidas necesarias.

En el caso de personas beneficiarias de prestaciones y subsidios por desempleo, este acuerdo personal de empleo formará parte del compromiso de actividad establecido en el artículo 41.

3.

El incumplimiento, por causas no justificadas, del acuerdo personal de empleo dará lugar a las sanciones previstas en el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

A estos efectos, los incumplimientos por parte de personas que sean beneficiarias de prestaciones y subsidios por desempleo supondrán un incumplimiento del compromiso de actividad suscrito por las mismas.

4.

Los servicios públicos de empleo serán responsables de la realización, seguimiento, evaluación y posible redefinición de los itinerarios individuales y personalizados de empleo y, en su caso, derivarán la realización de las acciones a desarrollar por las personas demandantes de empleo a las entidades colaboradoras.

En todo caso, se fijarán las actuaciones propias de los servicios públicos de empleo y las que podrán ser concertadas.

Artículo 30.

Colectivos prioritarios.

1.

El Gobierno y las comunidades autónomas adoptarán, de acuerdo con los preceptos constitucionales y estatutarios, así como con los compromisos asumidos en el ámbito de la Unión



Gobernuak eta autonomia-erkidegoek lan-merkaturatzeko zailtasun bereziak izaten dituztenen artean, batik bat, gazteen artean enplegua sustatzera bideratutako programa espezifikoak ezarriko dituzte eta bereziki erreparatuko diete prestakuntza-gabeziak dituztenei, emakumeei, luzaroko langabeei, 45 urtetik gorakoei, familia-erantzukizunak dituztenei, desgaitasuna dutenei edo gizarte-bazterketako egoeran daudenei eta etorkinei –atzerritarrei buruzko legeriarekin bat– edo Enplegu Sistema Nazionalaren esparruan zehatz daitezkeen beste batzuei.

2.

Gizatalde horien inguruabar bereziak kontuan izanik, neurri eta politika guztiak –behar bezala antolatutako eta osatzen dituzten pertsonen profil profesionalari eta beharizan zehatzei egokituak– konbinatzen dituzten banakako enplegu-ibilbide pertsonalizatuak diseinatzen direla bermatuko dute enplegu-zerbitzu publikoek.

Beharrezkoa denean, enplegu-zerbitzu publikoek balioetsiko dute gizarte-zerbitzuekin koordinatzea pertsona horiei arreta hobea eskaintzeko.

III. TITULUA

Enplegu-politikaren tresnak

I. KAPITULUA

Lan-bitartekotza

31. artikulua.

Lan-bitartekotzaren kontzeptua.

1.

Lan-bitartekotza da: lan-eskaintzak eta enplegu bat bilatzen duten langileak harremanetan jartzeko jarduera multzoa, azken horiek enplegatzeko.

Lan-bitartekotzak helburu hauek ditu: langileei beren ezaugarriei dagokien enplegua ematea eta enplegu-ematei beren eskakizun eta beharrei hobeak egokitzen zaizkien langileak aurkeztea.

2.

Lan-bitartekotza da, halaber: enpresak berregituratzeko prozesuetan sobran dauden langileak berriz enplegatzeko jarduera, aipatu prozesuak langileekin edo beren ordezkariekin zehaztu edo adostu badira gizarte-planetan edo berriz enplegatzeko programetan.

Europea y en la Estrategia Española de Activación para el Empleo, programas específicos destinados a fomentar el empleo de las personas con especiales dificultades de integración en el mercado de trabajo, especialmente jóvenes, con particular atención a aquellos con déficit de formación, mujeres, parados de larga duración, mayores de 45 años, personas con responsabilidades familiares, personas con discapacidad o en situación de exclusión social, e inmigrantes, con respeto a la legislación de extranjería, u otros que se puedan determinar, en el marco del Sistema Nacional de Empleo.

2.

Teniendo en cuenta las especiales circunstancias de estos colectivos, los servicios públicos de empleo asegurarán el diseño de itinerarios individuales y personalizados de empleo que combinen las diferentes medidas y políticas, debidamente ordenadas y ajustadas al perfil profesional de las personas que los integran y a sus necesidades específicas.

Cuando ello sea necesario, los servicios públicos de empleo valorarán la necesidad de coordinación con los servicios sociales para dar una mejor atención a estas personas.

TÍTULO III

Instrumentos de la política de empleo

CAPÍTULO I

La intermediación laboral

Artículo 31.

Concepto de la intermediación laboral.

1.

La intermediación laboral es el conjunto de acciones que tienen por objeto poner en contacto las ofertas de trabajo con los trabajadores que buscan un empleo, para su colocación.

La intermediación laboral tiene como finalidad proporcionar a los trabajadores un empleo adecuado a sus características y facilitar a los empleadores los trabajadores más apropiados a sus requerimientos y necesidades.

2.

También se considerará intermediación laboral la actividad destinada a la recolocación de los trabajadores que resultaran excedentes en procesos de reestructuración empresarial, cuando aquella hubiera sido establecida o acordada con los trabajadores o sus representantes en los



3.

Lan-bitartekotza zerbitzu publiko bat da, egiten duen agenteak egiten duela ere.

32. artikulua.

Bitartekotzaren eragileak.

Enplegu Sistema Nazionalari dagokionez, honako hauek egiten dute bitartekotza lan-merkatuan:

- a) Enplegu-zerbitzu publikoek.
- b) Enplegu-agentziek.
- c) Atzerrian diren langileentzat erregelamenduz zehazten diren beste zerbitzuek.

33. artikulua.

Enplegu-agentziak.

1.

Lege honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, enplegu-agentziak honako hauek izango dira: 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera lan-bitartekotzako jarduerak egiten dituzten erakunde publiko edo pribatuak, irabazi-asmoa dutenak edo irabazi-asmorik gabekoak, dela enplegu-zerbitzu publikoen laguntzaile moduan, dela modu autonomoan baina horiekin koordinatuta.

Era berean, langile-hautaketari eta enplegu-bilaketari lotutako jardunak garatu ahal izango dituzte, hala nola, lanbide-orientazioa eta -informazioa.

Berrito laneratzeko enpresak 31.2 artikuluan aipatzen den jardueran espezializatuta dauden enplegu-agentziak dira.

Enplegu-agentzien jarduera Espainiako lurralde osoan gara daiteke.

2.

Enplegu-agentzia gisa jardun nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek, bai eta aldi baterako laneko enpresek ere, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute aldez aurretik.

Erantzukizunpeko adierazpen hori Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan aurkeztu behar da baldin eta agentziak bi autonomia-erkidegotan edo gehiagotan kokatutako lantokietatik gauzatu behar badu jarduera, edo soilik baliabide elektronikoak baliatuta, edo autonomia-erkidegoko erakunde baliokidean, erkidego bakarrean kokatutako lantokietatik gauzatu behar badu jarduera.

correspondientes planes sociales o programas de recolocación.

3.

Con independencia del agente que la realice, la intermediación laboral tiene la consideración de un servicio de carácter público.

Artículo 32.

Agentes de la intermediación.

A efectos del Sistema Nacional de Empleo, la intermediación en el mercado de trabajo se realizará a través de:

- a) Los servicios públicos de empleo.
- b) Las agencias de colocación.
- c) Aquellos otros servicios que reglamentariamente se determinen para los trabajadores en el exterior.

Artículo 33.

Agencias de colocación.

1.

A efectos de lo previsto en esta ley se entenderá por agencias de colocación aquellas entidades públicas o privadas, con o sin ánimo de lucro, que realicen actividades de intermediación laboral de acuerdo con lo establecido en el artículo 31 bien como colaboradores de los Servicios Públicos de Empleo, bien de forma autónoma pero coordinada con los mismos.

Asimismo, podrán desarrollar actuaciones relacionadas con la búsqueda de empleo, tales como orientación e información profesional, y con la selección de personal.

Las empresas de recolocación son agencias de colocación especializadas en la actividad a que se refiere el artículo 31.2.

La actividad de las agencias de colocación se podrá realizar en todo el territorio español.

2.

Las personas físicas o jurídicas, incluidas las empresas de trabajo temporal, que deseen actuar como agencias de colocación deberán presentar con carácter previo una declaración responsable.

Esta declaración responsable se presentará ante el Servicio Público de Empleo Estatal en el supuesto de que la agencia pretenda realizar su actividad desde centros de trabajo establecidos en dos o más comunidades autónomas o utilizando exclusivamente medios electrónicos o por el equivalente de la comunidad autónoma, en el caso de que la agencia pretenda desarrollar su



Enplegu-agentziek erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten egunean ekin ahal izango diote jarduerari, administrazio eskudunek esleitura dituzten egiaztatze-, kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak aparte utzi gabe.

Erantzukizunpeko adierazpenean datu, adierazpen edo dokumentu oker edo faltsurik egin edo gehituz gero, ezingo da enplegu-agentzia gisa jarduerarik egiten jarraitu, horrek ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak gorabehera.

3.

Erregelamendu bidez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoek enplegu-agentziei emandako informazio guztia integratzea ahalbidetuko duen sistema elektronikoa komun bat arautuko da eta, hartara, erakunde horiek noiznahi jakin ahal izango dute beren lurraldean jarduten duten agentziak zeintzuk diren.

4.

Nolanahi ere, kapitulu honetan aurreikusitako betebeharrak eta erregelamendu bidez zehazten diren betebeharrak espezifikoak alde batera utzi gabe, enplegu-agentziek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Enplegu-zerbitzu publikoei erregelamendu bidez zehazten den informazioa ematea, erregelamenduan xedatutako aldizkakotasunarekin eta moduan, artatutako langileei eta garatzen dituzten jarduerari buruz, bai eta enplegu-eskaintzei eta eskaintza horiei dagozkien lanbide-profilei buruz ere.

b) Langileen intimitatea eta duintasuna errespetatzea, datu-babesari buruzko arauak betetzea, eta eskaintako zerbitzua dohainik izango dela bermatzea langileei.

c) Enplegu-zerbitzu publikoetako sistemekin bateragarriak eta osagarriak diren sistema elektronikoak izatea.

d) Lan-arloan eta Gizarte Segurantzari buruz indarrean dagoen araudia betetzea.

e) Desgaitasuna dutenen irisgarritasun unibertsalari buruzko arauak betetzea eta, bereziki, eskaintako lanpostuen ezaugarriak eskatzen den ikasketa- eta lanbide-profilearen

aktividad desde centros de trabajo establecidos únicamente en el territorio de esa comunidad.

Las agencias de colocación podrán iniciar su actividad desde el día de la presentación de la declaración responsable, sin perjuicio de las facultades de comprobación, control e inspección que tengan atribuidas las administraciones competentes.

La inexactitud o falsedad en cualquier dato, manifestación o documento, de carácter esencial, que se hubiera acompañado o incorporado a la declaración responsable, determinarán la imposibilidad de continuar con la actividad como agencia de colocación, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiere lugar.

3.

Reglamentariamente, se regulará un sistema electrónico común que permita integrar el conjunto de la información proporcionada por el Servicio Público de Empleo Estatal y por los servicios públicos de empleo de las comunidades autónomas respecto a las agencias de colocación de manera que éstos puedan conocer en todo momento las agencias que operan en su territorio.

4.

En todo caso, sin perjuicio de las obligaciones previstas en este Capítulo y de las específicas que se determinen reglamentariamente, las agencias de colocación deberán:

a) Suministrar a los servicios públicos de empleo la información que se determine por vía reglamentaria, con la periodicidad y la forma que allí se establezca sobre los trabajadores atendidos y las actividades que desarrollan, así como sobre las ofertas de empleo y los perfiles profesionales que correspondan con esas ofertas.

b) Respetar la intimidad y dignidad de los trabajadores y cumplir la normativa aplicable en materia de protección de datos y garantizar a los trabajadores la gratuidad por la prestación de servicios.

c) Disponer de sistemas electrónicos compatibles y complementarios con los de los servicios públicos de empleo.

d) Cumplir la normativa vigente en materia laboral y de Seguridad Social.

e) Cumplir con las normas sobre accesibilidad universal de las personas con discapacidad y, en particular, velar por la correcta relación entre las características de los puestos de trabajo ofertados y el perfil académico y profesional requerido, a fin



araberakoak direla zaintzea, desgaitasuna dutenek ere lana lortzeko aukera izan dezaten.

f) Bakoitzak bere eremuan, enplegua eskuratzeko berdintasunaren printzipioa bermatzea, eta ezin izango da inolako bereizkeriarik egin, langileak kasuan kasuko lanpostua betetzeko gaitasuna baldin badauka, ondorengoengatik: jatorriaren eraginez (hor sartzen dira arraza edo etnia), sexua, adina, egoera zibila, erlijioa edo sinesmenak, iritzi politikoa, sexu-joera, sindikatuetan afiliatuta egotea, gizarteko egoera, estatu barruko hizkuntzak edo ezintasunen bat izatea.

5.

Enplegu-agentziak enplegu-zerbitzu publikoen erakunde laguntzaileak jo ahalko dira, lege hau garatzen duten arauetan aurreikusitako helmenarekin.

Elkarlan hori arautzen duen tresna juridikoak dagozkion mekanismoak erregulatu beharko ditu, enplegu-agentziek mekanismo horien bidez komunika ditzaten langileek eta langabezia-prestazioaren eskatzaileek, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean aurreikusitako prestazioen eskatzaileek, hain zuzen, zein onuradunek bete ez dituzten betebeharrak.

6.

Aldi baterako laneko enpresek enplegu-agentzia gisa jardun ahalko dute, baldin eta lege honetan eta berau garatzen duten xedapenetan halako agentziei buruz zehaztutakora egokitzen badira, eta langileei zerbitzuak doan emateko agindua betetzen badute.

34. artikulua.

Lan-bitartekotzaren oinarriko printzipioak.

1.

Enplegu-zerbitzu publikoek eta enplegu-agentziek egindako lan-bitartekotza eta haiekin elkarlanean aritzen diren beste erakunde batzuek egin ditzaketen bitartekotza-jarduerak enplegurako irispiderako berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren konstituzio-printzipioen arabera egingo dira, erabateko gardentasunez funtziona dezatela bermatuz.

Aurreko lerrokadan adierazitako enplegu-zerbitzu publikoek, agentziek eta erakundeek datuen babesaren arloko araudi aplikagarriari jarraituko diote langileen datuak tratatzeko jardueretan.

de no excluir del acceso al empleo a las personas con discapacidad.

f) Garantizar, en su ámbito de actuación, el principio de igualdad en el acceso al empleo, no pudiendo establecer discriminación alguna, directa o indirecta, basada en motivos de origen, incluido el racial o étnico, sexo, edad, estado civil, religión o convicciones, opinión política, orientación sexual, afiliación sindical, condición social, lengua dentro del Estado y discapacidad, siempre que los trabajadores se hallasen en condiciones de aptitud para desempeñar el trabajo o empleo de que se trate.

5.

Las agencias de colocación podrán ser consideradas entidades colaboradoras de los servicios públicos de empleo, con el alcance previsto en las normas de desarrollo de esta ley.

El instrumento jurídico en que se articule esta colaboración deberá regular los mecanismos de comunicación por parte de las agencias de colocación de los incumplimientos de las obligaciones de los trabajadores y de los solicitantes y beneficiarios de prestaciones por desempleo previstas en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

6.

Las empresas de trabajo temporal podrán actuar como agencias de colocación si se ajustan a lo establecido respecto de dichas agencias en esta ley y sus disposiciones de desarrollo, incluida la obligación de garantizar a los trabajadores la gratuidad por la prestación de servicios.

Artículo 34.

Principios básicos de la intermediación laboral.

1.

La intermediación laboral realizada por los servicios públicos de empleo y las agencias de colocación, así como las acciones de intermediación que puedan realizar otras entidades colaboradoras de aquéllos, se prestarán de acuerdo a los principios constitucionales de igualdad de oportunidades en el acceso al empleo y no discriminación, garantizándose la plena transparencia en el funcionamiento de los mismos.

Los servicios públicos de empleo, agencias y entidades señalados en el párrafo anterior someterán su actuación en el tratamiento de datos de los trabajadores a la normativa aplicable en materia de protección de datos.



2.

Printzipio horiek betetzen direla ziurtatzeko, enplegu-zerbitzu publikoek berrmatuko dute lan-eskaintzaren eta enplegu-eskaeraren arteko hautaketa-eta uztartze-prozesu zehatza enplegu-zerbitzu publikoari eta enplegu-agentziei dagokiela, oro har.

Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten gizataldeen kasuan, enplegu-zerbitzu publikoek lankidetzaren erakunde espezializatuekin jardun ahal izango dute aurreko paragrafoan aipatzen den prozesua burutzeko.

3.

Enplegu-zerbitzu publikoek beren gain hartzen dute lan-bitartekotzaren alderdi publikoa, baina zilegi izango dute enplegu-eskatzailleak enplegatzen laguntzeko helburua duten itunak, hitzarmenak edo beste koordinazio-tresna batzuk sortzea beste erakunde eta enplegu-agentzia batzuekin.

4.

Enplegu-zerbitzu publikoek egindako bitartekotza –bai beren kabuz egindakoa, bai enplegu-erakunde edo -agentzien bidez egindakoa, haiekiko elkarlanaren eremuko jarduerak egiten dituztenean, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera– doakoa izango da langileentzat eta enplegu-emaileentzat.

Enplegu-zerbitzu publikoak gorabehera, enplegu-agentziek egiten duten bitartekotza doakoa izango da langileentzat; beraz, ezingo diete inolako ordainik eskatu zerbitzuen truke.

5.

Enplegu-zerbitzu publikoek eta, hala badagokio, horiekin elkarlanean aritzen diren erakundeek egiten duten bitartekotzaren ondorioetarako eta enplegu-politika aktiboen programak eta neurriak gauzatzearen ondorioetarako, enplegu-eskatzailleak izango dira halakotzat inskribatzen direnak enplegu-zerbitzu publikoetan.

35. artikulua.

Bereizkeria enplegua lortzeko ustean.

1.

Enplegu-zerbitzu publikoek, horien erakunde laguntzaileek eta enplegu-agentziek, lan-bitartekotza kudeatzean, berebiziko arduraz

2.

Con el fin de asegurar el cumplimiento de los citados principios, los servicios públicos de empleo garantizarán que el proceso específico de selección y casación entre oferta de trabajo y demanda de empleo corresponda, con carácter general, al servicio público de empleo y a las agencias de colocación.

En el supuesto de colectivos con especiales dificultades de inserción laboral, los servicios públicos de empleo podrán contar con entidades colaboradoras especializadas para realizar el proceso a que se refiere el párrafo anterior.

3.

Los servicios públicos de empleo asumen la dimensión pública de la intermediación laboral, si bien podrán establecer con otras entidades y con agencias de colocación, convenios, acuerdos u otros instrumentos de coordinación que tengan por objeto favorecer la colocación de demandantes de empleo.

4.

La intermediación laboral realizada por los servicios públicos de empleo, por sí mismos o a través de las entidades o agencias de colocación cuando realicen actividades incluidas en el ámbito de la colaboración con aquéllos, conforme a lo establecido en este capítulo, se realizará de forma gratuita para los trabajadores y para los empleadores.

La intermediación realizada por las agencias de colocación con independencia de los servicios públicos de empleo deberá garantizar a los trabajadores la gratuidad por la prestación de servicios, no pudiéndose exigir a éstos ninguna contraprestación por los mismos.

5.

A efectos de la intermediación que realicen los servicios públicos de empleo y, en su caso, las entidades colaboradoras de los mismos y de la ejecución de los programas y medidas de políticas activas de empleo, tendrán exclusivamente la consideración de demandantes de empleo aquéllos que se inscriban como tales en dichos servicios públicos de empleo.

Artículo 35.

Discriminación en el acceso al empleo.

1.

Los servicios públicos de empleo, sus entidades colaboradoras y las agencias de colocación en la gestión de la intermediación laboral deberán velar



jardun beharko dute, enplegua lortzeko unean bereizkeria –zuzena nahiz zeharkakoa– saihets dadin.

Lan-bitartekotzaren kudeatzaileek, lan-
eskaintzetan bereizkeria antzematen dutenean, horren berri emango diote eskaintza egin dutenei.

2.

Bereziki, bereizkeriatzat joko dira sexu jakin bateko pertsoneri bakarrik egindako eskaintzak, salbu eta hori lanbide-izaerako betekizun bat denean, oinarritzakoa eta erabakigarria, gauzatu beharreko jarduerari begira.

Edozein kasutan diskriminatzailetzat joko da lan-posturako indar fisikoarekin loturiko betekizunetan oinarritzen den eskaintza egitea sexuatariko bati.

II. KAPITULUA

Enplegu-politika aktiboak

36. artikulua.

Enplegu-politika aktiboen kontzeptua.

1.

Enplegu-politika aktiboak honako xede hauek dituzten orientazio, enplegu eta lan-eremuko enplegurako lanbide-prestakuntzako programa eta zerbitzuen multzoa da: langabeek beren edo inoren kontura lan-merkatuan enplegua aurkitzeko aukerak hobetzea, landunek enpleguari eutsi eta mailaz igotzea, eta enpresa-espirtua eta gizarte-ekonomia sustatzea.

Aurreko paragrafoan definituriko politikak Estatu osoan garatu beharko dira jarduera horiek egiten dituzten lan-eremuko enplegurako lanbide-prestakuntzako eta lan-bitartekotzako eragileak elkarren artean koordinaturik, enplegu-eskatzaileak enplegatzen laguntzeko helburuz, eta kontuan izanda Enplegua Aktibatzekeo Espainiako Estrategia, aplikatu beharreko Estatuko araudian xedatutako eduki komunak, enplegu-eskatzaileen beharrianak eta lan-merkatu bakoitzaren eskakizunak.

2.

Politika horien osagarri izango da eta haiekin erlazionaturik egongo da, hala badagokio, langabezia-babesa, Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren testu bateginean arautua.

Lege-testu horretako 206. artikulua aipatzen duen langabezia-babesekeo ekintzak barnean hartzen ditu kontribuzio- eta asistentzia-mailako

específicamente para evitar la discriminación tanto directa como indirecta en el acceso al empleo.

Los gestores de la intermediación laboral cuando, en las ofertas de colocación, apreciaren carácter discriminatorio, lo comunicarán a quienes hubiesen formulado la oferta.

2.

En particular, se considerarán discriminatorias las ofertas referidas a uno de los sexos, salvo que se trate de un requisito profesional esencial y determinante de la actividad a desarrollar.

En todo caso se considerará discriminatoria la oferta referida a uno solo de los sexos basada en exigencias del puesto de trabajo relacionadas con el esfuerzo físico.

CAPÍTULO II

Las políticas activas de empleo

Artículo 36.

Concepto de las políticas activas de empleo.

1.

Se entiende por políticas activas de empleo el conjunto de servicios y programas de orientación, empleo y formación profesional para el empleo en el ámbito laboral dirigidas a mejorar las posibilidades de acceso al empleo, por cuenta ajena o propia, de las personas desempleadas, al mantenimiento del empleo y a la promoción profesional de las personas ocupadas y al fomento del espíritu empresarial y de la economía social.

Las políticas definidas en el párrafo anterior deberán desarrollarse en todo el Estado, teniendo en cuenta la Estrategia Española de Activación para el Empleo, los contenidos comunes establecidos en la normativa estatal de aplicación, las necesidades de los demandantes de empleo y los requerimientos de los respectivos mercados de trabajo, de manera coordinada entre los agentes de formación profesional para el empleo en el ámbito laboral e intermediación laboral que realizan tales acciones, con objeto de favorecer la colocación de los demandantes de empleo.

2.

Dichas políticas se complementarán y se relacionarán, en su caso, con la protección por desempleo regulada en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

La acción protectora por desempleo a que se refiere el artículo 206 del referido texto legal comprende las prestaciones por desempleo de



langabezia-prestazioak eta enplegu-politika aktiboak osatzen dituzten jarduerak.

3.

Enplegu-politika aktiboetara bideratutako baliabide ekonomikoak enplegu-zerbitzu publikoek kudeatuko dituzte, eta beharrezko irizitako zerbitzu eta programak garatu ahal izango dituzte, artikuluko honen 1. zenbakian jasotako alderdiak aintzat hartuta; programa eta zerbitzu horiek enplegu-politikako urteko planetan bilduko dira eta 10.4 artikuluan xedatutako ardatzetan txertatuta egongo dira.

Zerbitzu eta programa horiek kudeatzeko, diru-laguntza publikoak eman ahal izango dira, administrazio-kontratuak egin, hitzarmenak sinatu, zuzenean kudeatu edo zuzenbidearen araberrako beste edozein forma juridiko baliatua.

37. artikulua.

Enplegu-politika aktiboen printzipio orokorrak.

1.

Enplegu-politika aktiboak diseinatzeko eta gauzatzeko, honako printzipio orokor hauek hartu behar dira aintzat:

a) Banakako tratamendu espezializatua ematea langabeei, beren enplegagarritasuna hobetzeko, bai eta landunei ere, beren enpleguaren kalitatea hobetzen eta enpleguari eusten laguntzeko.

b) Enpresen beharrei erantzutea giza kapitalaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan.

c) Autoenplegua eta ekintzailtza sustatzea, batik bat ekonomia jasangarriaren eta enplegu-sorgune berrien esparruan, eta ekintzaileei arreta ematea eta beren enpresa-ekimena abiarazten laguntzea.

d) Aukera-berdintasuna eta bereizkeriarik eza enplegua eskuratzeko, 2.a) artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Zehazki, emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren helburua hartuko da aintzat, erabateko sexu-berdintasuna bermatzeko.

e) Lurraldearen ezaugarrietara egokitzea, tokiko eta sektoreko lan-merkatuaren errealitatea eta berezitasunak aintzat hartuta.

nivel contributivo y asistencial y las acciones que integran las políticas activas de empleo.

3.

Los recursos económicos destinados a las políticas activas de empleo serán gestionados por los servicios públicos de empleo, pudiendo desarrollar los servicios y programas que consideren necesarios, teniendo en cuenta los aspectos contemplados en el apartado 1 de este artículo, y que se incluirán en los Planes Anuales de Política de Empleo y estarán integrados en los Ejes establecidos en el artículo 10.4.

Estos servicios y programas podrán ser gestionados mediante la concesión de subvenciones públicas, contratación administrativa, suscripción de convenios, gestión directa o cualquier otra forma jurídica ajustada a derecho.

Artículo 37.

Principios generales de las políticas activas de empleo.

1.

En el diseño y ejecución de las políticas activas de empleo han de estar presentes los siguientes principios generales:

a) El tratamiento individualizado y especializado a las personas en situación de desempleo para mejorar su empleabilidad, así como a las personas ocupadas para contribuir a la calidad y mantenimiento de su empleo.

b) La respuesta a las necesidades de las empresas en materia de capital humano, empleo y formación.

c) El fomento del autoempleo y la iniciativa emprendedora, especialmente en el marco de la economía sostenible y de los nuevos yacimientos de empleo, incluyendo la atención y el acompañamiento a las personas emprendedoras en la puesta en marcha de su iniciativa empresarial.

d) La igualdad de oportunidades y no discriminación en el acceso al empleo en los términos previstos en el artículo 2.a).

En particular, se tendrá en cuenta de manera activa el objetivo de la igualdad de trato entre mujeres y hombres para garantizar en la práctica la plena igualdad por razón de sexo.

e) La adecuación a las características del territorio, teniendo en cuenta la realidad del mercado de trabajo y las peculiaridades locales y sectoriales.



2.

Enplegu-zerbitzu publikoen erakunde laguntzaileen jarduera guztietan ere jarraitu beharko dira printzipiook.

38. artikulua.

Enplegu-politika aktiboen garapena.

Enplegu-politika aktiboen zerbitzu eta programen bitartez 10.4 artikuluan ezarritako ardatzei estaldura ematen zaie; autonomia-erkidegoek eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak diseinatu eta garatuko dituzte zerbitzu eta programa horiek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, aplikatu beharreko Estatuko araudian xedatutako eduki komunak aintzat hartuta.

Ondorio horietarako, Estatuko lurralde osoan aplikatu beharreko zerbitzu eta programak eta eduki komunak erregelamendu bidez arautuko dira.

Erregelamendu bidezko garapen horretan, desgaitasuna duten pertsonen laneratzea laguntzeko enplegu-politika aktiboen lege-esparrua arautuko da Estatuko neurriei dagokienez; lege-esparru horretan, Estatuan aplikatu beharreko gutxienezko edukiak zehaztuko dira.

39. artikulua.

Enplegu-politika aktiboen ebaluazio jarraitua.

Gobernuak txosten bat aurkeztuko du urtero, Estatu osoko enplegu-politika aktiboen gastuari eta emaitzei buruzkoa –sistema kudeatzeko beharrezkoa den gastua barne–; horrela, gardentasun handiagoa emango die enplegu- eta prestakuntza-politikei, eta gastuaren eraginkortasuna eta efizientzia bermatzen lagunduko du, zehaztutako helburuekin bat.

